

zaratu da proiektua sasigorpuztua. Hala bedi! Gauza gehiegi esan nahi eta hitzak tropelka datoz, ahoskatu ezinean. Beharrezkoa da. Funtsezkoa da. Premiazkoa da. Herri honek ez du behar duen unibertsitatea. Zaila da baina egin behar da, beste guztia egin den bezala, borondatez, militantziaz.

Amaitzeko zilegi bekit hausnarketa pertsonala egitea. Txikitako gogoramen on-onen artean ditut Gasteiztik Lizarrarako trenean emandako ordu luzeak, Kanpetzu, Maeztu eta beste hainbat herri zeharkatuz. Biziki maite nuen eta dagoeneko hilik dagoen tren zahar hark lagundu nau artikulu hau idazten. Berau izan dadila Lizarrarako tren hari nire omenaldi xumea. ♣



Allande Sokarros

Tradizio txar horiek!

Euskaldunon Egunkaria-ko azken orriko zutabe batean idatzi nuen behin artikulutxo bat nahiko (eta nahita) bortitza eta «Faxistak» izenburua jarri nion. Horretan izan nituen aipagai Hondarribia eta Irungo Alardeen inguruan egondako gertakari lotsagarriak, hots, «betiko Alardearen» edo «tradizioko Alardearen» aldekoek izandako jokaera eskandalagarriak. Faxistak! Hitz oso gogorra dela ondo dakit eta zama historiko handia daukana Hego Euskal Herrian, nola ere beste zenbait herritan, erregimen faxistak ezagutu eta pairatu egin dituztenak. Hargatik, berriz ere diot nahita aukeratutako hitza izan zela eta ez arinkieriaz botatakoa.

Ezen, zer ote dira faxistak, besteen hitza, iritzia, pentsakera, jokaera eta oro har libertatea bera onartzen ez dutenak baizik? Niretzat, faxismoa da ziur egotea neuk bakarrik daukadala arrazoa, nik pentsatu dudanarekin bat ez daudenak isilarazi behar direla, nirekin ados ez direnak

indarrez eragotzi behar ditudala. Nire iritzian faxismoa da ideologia bat noski, baina ideologiaz sekula gogoetatu ez diren askoren jokamoldea baita ere. Eta jokamolde hori argi eta garbi daukate Alarde tradizionalaren zaintzaile eta ekintzaileek.

Urrunago joan aurretik erran dezadan oraintxe bertan esker gutxi daukadala Alardearen alderat. Niretzat desfile militar hits bat besterik ez da, indarrezko gertaera batzuk gogorarazten eta goraipatzen dituen ikusgai deitoragarri bat, armekin jokatzea goستن duen jarrera bat, hitz batez tradizio txar bat. Zeren eta tradizioa ez baita be-ti berez ona, tradizio txarrak eta okaztagarriak ere badau-dela onartu behar baita, eta hauen bertan behera uztea ez dela damugarria.

Tzintzarrotsak eta Asto Lasterrak zaka-
rrontzirat...

Zuberoan ere bagenituen tradizio higuingarriak eta, zo-rionez, galtzerat utzi ditugu. Hala Tzintzarrotsak, hala ere Asto Lasterrak. Bi gertakari hauek —ez nieke nahi ikusgarri izena eman— gizarte herabe eta judikatsaile baten islak zi-ren, mundua bitan zatitzen duen —onak alde batetik eta gaiztoak bestetik— pentsakera baten emaitzak. Esaterako, tzintzarrots zein Asto Lasterretan gizonezko bat bere emaz-teaz kanpoko beste norbaiten maitalea izatea salatzen zen eta berdin —edo gehiago— emakume baten kontutik. Ba-liteke, bikote baten kasuan, fidelitasuna kalitate edo balore handi bat izatea baina makurtzerik gertatzen bada, zer es-kubide dauka gizarteak honen gaitzesteko? Bikote horren kontua da eta besterik ez. Bakoitzak berea eta kitto!

Beraz, Zuberoan desagertzerat utzi ditugu Tzintzarro-tsak eta Asto Lasterrak eta hainbat hobe da. Pastoral eta Maskaradei dagokienez, ez dira sekulan izan gizonezkoen eta emakumeen arteko bazterkeria baten haztekoak. Lehe-nago, egia da Pastoral zein Maskaradetan gizonezkoak soi-lik izan zirela, baina emakumeek ere euren aldetik egin zi-tzaketen eta egin zituzten. Hor ez zegoen gizonezkoen eta emakumeen arteko bereizkeria konturik, batzuk gauza zi-

rela Pastoralak eta Maskaradak egiteko eta besteak ez, alegia. Gero, XX. mendearen azken hamarkadetan, gizonekoak eta emakumeak elkarrekin ezartzeko ohitura sartu zen eta gauzak oso ongi pasatu ziren, batere dramarik gabe.

Orduan, zer deritzagute Alardezale amorratu eta tradizionalista horiek? Tradizioak agintzen ei badiote emakumeak baztertzea, tradizio hauek zakarrontzirat bota ditzaten! Zuberoan erran ohi dugunez: «ez date galtzea handi», zinez tradizio oldarkor, erdeinagarri eta matxista baita Alardearena. Azken batean, Jaizkibel konpainiako gizonetako eta emakumeen jazarraldia ulertzen eta sustatzen dut jokaera faxista bati gogor egitea bezala eta ez tradizio gisa Alardea gustukoa dudalakotz. Kontu honekin amaitzeko, erran dezadan erabat lotsatuta nagoela jarrera eta jokamolde faxista hauek euskal kulturaren eta euskaltasunaren izenean gerta daitezzen. Euskal kulturazale naiz errotik eta euskalduna ere, nola ez, baina nik ez dut ezer ikustekorik nahi jende eta jarrera zital hauekin.

Pastoralen sailean norgehiagoka hutsala

Pastoralak aipagai izan baitituz aurreko lerroetan, ildo honi jarraiki dezadan egoera penagarri batez bi hitz errateko. 2000. urtean ere pastoral bat gozatzeko aukerarik izango dugu, hain zuzen Eskiula herriak emango duena Maddalen Jauregiberri anderearen figura gogorarazteko. Ez naiz batere ziur Maddalen Jauregiberriren biziak eta lanek pastoral baten gaia emateko zioa zeukatenik. Zibozeko andere hau frantximantek, erran nahi baita euskaraz ez dakitenek, moldatutako mito bat da. Haren merezimendua, nolabait esatearren, euskaltzaletasuna eta aber-tzaletasuna nahiko ahul agertzen ziren garaietan euskarren eta euskal kulturaren sostengazale egotea izan zen. Baina, Maddalen Jauregiberrik arras gutxi zekien euskaraz eta are gutxiago mintzo zen gure hizkuntzan. Beraz, funtsik gabeko mito batez egingo dute pastoral bat eta mitoa-ri hats berri bat emango badio ere, errealitateak, herritarren gomutan, bere horretan jarraituko du.

Haatik, ez zen hau penagarritzat jo dudan egoera, bai, ordea, 2001. urtean gerta daitekeena baina agian jazoko ez dena, hots bi pastoral egitea, berriz ere, urte berean. Alde batetik, Sohüta herriak antola dezake Jean-Louis Davant euskal idazle eta euskaltzain ezagunak idatzitako pastoral bat, Zuberoan, azken mundu gerra denboran, izandako gertakari ohargarri batez, hau da Mitikileko sasitaldeaz. Garai latz haietan egon ziren gizonezko eta emakumezko adoretzu batzuk, euren biziaren arriskura, naziei aurre egiteko eta hauen jokaera laudagarria gogorazaziko digu Jean-Louis Davanten obrak.

Zuberotar erresistente haien gomutaraztea nahikoa izango zen 2001. urterako. Baina, hara non jakiten dugun, bestalde, bigarren pastoral bat bidean litzatekeela edo behintzat aipatzen hasia dela eta hau Iruri eta Zalgizeko herritarrek antzeztuko luketela, Pierre Bordazarre «Etxahun-Iruriren» omenetan. Bi pastoral urte berean! Iraganeko gertakarietatik, dirudienez, ez dute ezer ikasi zenbaitek. Orduan, hauxe da erran gogo dudana: bi pastoral hauetatik bat soberan da eta, nik dakidanez, Jean-Louis Davantek askoz ere lehenagotik aipatu zuen Mitikileko sasiar zerbait egiteko gogoia. Beraz, Iruri eta Zalgizeko jendeak dira tartean sartu direnak, Roger Idiart apaizak bultzaturik. Roger Idiarti begirune osoa diot euskalzale eta abertzale gisa, baina tamalgarri iruditzen zait pastoralen sailean orain arte izan duen esku-sartzea. 1989. urtean, eztabaida purtzil eta funtsik gabeko bat piztu zuen Altzai eta Lakarrik eman zuten *Zumalakarregi* pastoralaren inguruan eta, antza denez, honen helburu bakarra —eta ondorioa behintzat bai— *Enbata* astekariaren salmentak ugaltzea izan zen. Gero, Muskildi herriak *Harizpe* pastora la aurkeztu zuen urte berean, oso egokitzen iruditu zitzaion *Xalbador* pastora la taularaztea.

Okerrean nagoela gerta daiteke, noski, baina nire iritzian, bi pastoral urte berean egitea ergelkeria hutsa da. Batek besteari kalte egingo dio, zalantza izpirik gabe, biak udan ez badira egiten ere. Hor, nik uste, pastoral idazleen eta emaileen artean norgehiagoka hutsal bat badago eta gure euskara eta euskal izakeraren kalterako izango da.

Pastoral bat urtean behin, indar egite nahikoa da. Ez dugu gure ahalen baino gehiago jokatzetik eta espero dut zentzutasuna nagusituko dela. Bi pastoral tamalez izaten bada, ni behintzat ez naiz bietara joanen; aukera bat egiten dut eta zilegitasunaren bidetik ibiliko naiz.

Euskararen aldeko borroka premiatsua

Indarrak alferretan emate horiek baino askoz ere hobe izango litzateke euskararen alde zerbait egingo bagenu gure Zuberoan. Ezen, hemen ere mito bat hautsi beharrekoa dela deritzot. Ez, Zuberoa ez da euskararen eta euskal kulturaren lurralde santua, ezta gutxiago ere. Zuberoan, gaur egun, euskara oso kinka larrian dago; haur oso gutxiak dakite eta are gutxiagok mintzatzen dute; oso gutxiago gara, berriz, euskaraz irakurtzen eta idazten dakigunok. Are larriago: erdaldun haurrek edo gazteek erdaldundu egiten dituzte, orain arte euskaraz zertxobait egiten zuten euren gurasoak! Horretan da errealitate hitsa eta gezurtatzerik ez dut, tamalez baina, arriskutzen.

Alta, paradoxa handi bat bada: sekula ez da euskara orain arte bezain ongi ikusia izan, itxuraz eta hitzetan behintzat. Obretan ere azkenean, zeren eta aginte publikoek beraiek ere onartu egiten baitute, sail mugatuan baldin bada ere, hala nola bide seinaleetan. Esaterako, orain dela gutxi, Mauleko kantonamendu egiturak —Sivom delakoak— galdegin dit ingurumeneko seinale batzuk euskaratzea eta onartu egin dut, duda izpirik gabe. Izan ere, baliteke hautetsi eta kargudun hauetatik gehienek euskararen alderat bost axola izatea, nik dakidana da, ordea, euskarak leku bat gehiago hartuko duela Zuberoako karrika, bide eta plazetan eta hori zait, lehenik eta behin, axola.

Berriz ere diot, haatik, oso ulergaitza zaidala euskararen alderako jarrera horren egokia dirudien une batean, gure hizkuntzaren bizi eremua hain hertsia izatea eta hertsatzen jarraitzea. Erdaraz erran ohi da «Le Chant du Cygne» (beltxargaren kantua, alegia) zerbait oso ederra aditza edo gertatzea, heriotza bidean, eta ez nuke nahi para-

bola hori egiazta dadin euskararen kasuan. Ez naiz ezko-
rra, ezta batere, baina euskararen salbatzeko eta geroari
begira sendotzeko ez dut uste hamar mila bide denik. Lor-
tu behar dugu, ahal bezain lasterren, ofizialtasun maila
batera irits dadin. Aspalditik ohartuta nabil, herritar gu-
tiz-gehienak zilegitasunaren aldekoak direla eta, beraz,
noiz eta euskarak legezko arau bat izango duenean, or-
duan eta haren gerizatzaille izango dira. Anartean, frantses
agintearen alderat borroka eginda eta gure egunerokoan
lan txikiena ere eginda sustatu behar dugu euskara. Guk,
abertzaleek edo euskaltzaleek —bost axola zait bakoitzak
nola ikusten duen bere burua— hori ez badugu egiten,
inork ez du eginen eta euskarak bai, orduan, berea egina
izango duela. Hargatik, ez dut gertakizun hau sinesten,
bai baitakit egongo garela, gero eta gehiago, esperantza-
ren bideetatik ibiltzaille. ♣



Andres Urrutia

Akarregik dio

I

Akarregik dio lerro hauen arrazoa izan dela behingo ba-
tean Donostiatik jaso zuen gutuna. Bertan esaten zitzaion,
labur eta sotil, idatzi behar zituela azken urte honen gora-
beherak. Dio Akarregik aurretiaz ere jaso zuela halako
enkargu eta mandaturik, eta aspaldikoa izan arren, orain-
goan ere ez duela asmorik huts egiteko, inork inon kritika
ez eta, are kezagarriagoa dena, urteroko euskal argazkie-
tatik baten batek bazter ez dezan.

Joan da, bada, Akarregi bere luma hartzera garai bate-
ko adixkide idazleei erantzuna emateko. Ez du, horratio,
horretarako argumenturik nahikoa. Akarregi, jakina, egun-